


BALIO PROPOSAMENA

Audifonoak behar dituzten pertsonak gizartean “*baztertuta*” daudela esan dezakegu. Gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonak ez bezala, pertsona gorrak eguneko bizitzarako ez ditu ez laguntza, ez beraientzako moldatutako gauza askorik. Hiri handietan agian bai, baina herri txikietan murgilduz gero, egunerokotasunean aurki daiteken oztopo guztientzako ez dute erreztasunik.

Iturri desberdinetan (Audifonos365.es eta La Vanguardia) argitaratutako informazioaren arabera, 2022an % 24ko hazkundea erregistratu zen azken lau urteetan, eta salmentei dagokienez 381.194 unitate izan ziren. Eta 2023ko azken ekitaldi honetan, Espainiako merkatu-datuek 405.612 aleko salmentak ematen zituzten guztira.


Audifonoen Fabrikatzaile eta Inportatzaileen Elkarte Nazionalak, Espainiako sektore ia osoa barne hartzen duenak, ebaluatu du oraindik ere 2022ko eta 2023ko salmenten igoera % 6,4koa izan dela, baina sartze-ratioak inguruko herrialde gehienetakoa baino txikiagoa izaten jarraitzen du. Eta EuroTrak2 txostenaren arabera, Espainian teknologia horren erabileraren eta pisu demografikoaren arteko proportzioa % 38.8koa baino ez da. Horrek esan nahi du entzumen-galera dutela aitortu duten 10 pertsonetatik 4k baino gutxiagok audifonoak erabiltzen dituztela hori zuzentzeko.

Evolución mercado audífonos en España



Sortu nahi dugun enpresak, azken teknologiako audifonoak eskaintzen ditu, soinu-kalitate bikainekoak, erosotasun pertsonalizatua eta diseinu modernoak konbinatuz. Entzumena hobetzea, musikaz gozatzea eta komunikazioa erraztea da gure helburua. Bezeroak produktuarekin arazorik ez duela zihurtatzeko arreta zerbitzu oso hurbil bat eskainiko dugu.

Bere diseinua, minimalista izango zen, kolorearen arabera ohartu ere ez zara egingo jantzita duzula. Edozein kolorekoa izan daiteke, bakoitzak bere gustuen arabera aukera dezake.



Etxera eramateko aukera egongo litzake, bizpahiru egunetan etxean bertan edukiko zenuke. Produktuak arazoren bat izango balu produktua aldatuko litzaioke. Aldaketak beste bizpahiru egun iraungo luke.